

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	Koniker S. Coop.
2. Sektorea:	Berrikuntza eta ingeniariaritz
3. Langile kopurua:	31
4. Webgunea:	www.koniker.coop
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	KONIKER S.COOP. industriako makina eta fabrikazio prozesuekin lotura duten teknologia berrien ikerketan eta garapenean espezializatuta dagoen Agente Zientifiko-Teknologikoa da . 2002an sortu zen, eta harrez gero, . Fagor Arrasate eta Mondragon Assemblyren Ikerketa Unitatea izanik, berrikuntzaren eta eraldaketaren aldetik enpresa hauek dituzten premiei erantzuten saiatzen ari da modu koordinatuan, enprekin, zentro teknologikoekin eta unibertsiteatekin elkarlanean aritzeko aukeraz baliatuta.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Unai Argarate
Helbide elektronikoa:	u.argarate@koniker.coop
Telefonoa:	607092493

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Kanpo jardunaldietan ikerketa proiektuak euskaraz aurkeztea
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Bi urtetik behin Donostian antolatzen den AFMren estatu mailako kongresuan aurkezten diren ikerketa proiektuetako ponentziak euskaraz egitea eta bestelako Zentro Teknologikoak aurkezten dituztenak ere euskaraz izan daitezten sustatzea.</p> <p>Hizkuntza politikatik. Kanpo harremanetarako irizpideak hauek dira:</p> <p>Kanpo harremanak:</p> <ul style="list-style-type: none">-Bezeroaren hizkuntzak edo bezeroak eskatu duen harreman hizkuntzak izango du lehentasuna. Produktu eta zerbitzuan ere bai.-<u>Hornitzaile, finantza erakunde eta administrazio eta bestelako kanpo harremanetan tokian tokiko hizkuntzak izango du lehentasuna eta Euskal Herrian euskararen erabilera bultzatuko da.</u> <p>AFMk estatu mailako kongresua antolatzen du bi urtetik behin Donostian. Orain urte batzuk Konikerrek Fagor Arrasaterekin batera proiektuak euskaraz aurkeztuko zituela jakinarazi zionean antolakuntzari, arazoak izan zituen aldi bereko itzulpena lortzeko eta zenbait forotan hautsak harrotu zituen. Urte batean Konikerrek ordaindu behar izan zuen zerbitzu hori. Baina, azken bi jardunaldietan berriro ponentziak euskaraz egiteko nahia aurkeztean, jarrera beste bat izan da eta horren erakusle, urtetik urtera euskaraz aurkezten diren lan kopurua gora dioala da. Azken edizioan:</p> <ul style="list-style-type: none">-Jardunaldietako web gunea euskaraz ere jarri zuten,-Aldi bereko itzulpena jarri du erakundeak berak euskaraz.-Euskaraz egindako lan onenarentzat ere saria jarri zuten. <p>Ikerketa proiektuak EHko hainbat enpresatan euskaraz garatzen direla ikusarazi da, euskaldunak lana euskaraz egin eta EHko jardunaldietan euskaraz aurkezteko baliabideak eskaini zaizkiela sentitu dute eta oro har hizkuntzaren prestigiorako ere balio du.</p>

1.- Konikerreko Hizuntza politika; misioa eta kanpo harremanei erreferentzia:



HIZKUNTZEN KUDEAKETA

Konikerren, gero eta eleaniztunago den inguruagatik eta nazioartekotzaren erabakiaren ondorioz, hainbat hizkuntza erabiltzen ditugu. Hau litzateke gure misioa:

Konikerrek hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatu nahi ditu, lekuan lekuko hizkuntzari tokia eginda eta langileotako bakoitzari euskaraz lan egiteko aukera bermatzea da helburua. Honela, euskara, enpresaren eremu guztietan lan-hizkuntza bilakatzea, bai ahoz eta bai idatziz.

Hizkuntza politika honen **jardun nagusiak** ondorengo hirurak dira eta jarraibide orokorrak hauek izango dira:

1. Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa:

- ❖ Tokian tokiko hizkuntzak izango du lehentasuna eta behar komertzial edo sozialei begira jokatu da. Gizartera begirako ekintzetan tokian tokiko hizkuntzak izango du lehentasuna (publizitatea, kaptazio iragarkiak, ekitaldiak...) eta behar komertzialetan saltzeko komenigarriena den hizkuntzak (katalogoak, sare sozialak...).

2. Kanpo harremanak:

- ❖ Bezeroaren hizkuntzak edo bezeroak eskatu duen harreman hizkuntzak izango du lehentasuna. ~~Produktu eta zerbitzuan ere bai.~~
- ❖ Hornitzaile, finantza erakunde eta administrazio eta bestelako kanpo harremanetan tokian tokiko hizkuntzak izango du lehentasuna eta Euskal Herrian euskararen erabilera bultzatuko da.

3. Barne harremanak

- ❖ Tokian tokiko hizkuntzak izango du lehentasuna. EHko lantegietan ahal den guztietan euskarari lehentasuna emango zaio.
- ❖ Pertsonen hautaketa: lanpostu guztiek daukete hizkuntzen eskakizuna zehaztuta.

2.- Jardunaldietako web orriaren lotura:

<https://congresomh.afm.es/eu/hasiera/>